# 48. OSOKO BILKURAKO AKTA

Zumaiako herrian, 2011ko abenduaren 2an, arratsaldeko seietan, udaletxe honetako batzar aretoan Udalbatza eratu da ez ohiko bilkura egiteko, aurrez zehaztutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta zuzen deitu direlarik, Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

**Lehendakaria:** Iñaki Agirrezabalaga Alkorta jn.

**Bertaratutako zinegotziak:**

Azis Alberdi Zaldunbide jn.

Iñaki Ostolaza Esnal jn.

Arritokieta Gonzalez Elosua and.

Eneko Agirre Maiora jn.

Maitane Agirre Arrieta and.

Montse Arana Perez and.

Edurne Egaña Manterola and.

Juan Carlos Cendoya Aizpurua jn.

Ana Arranz Irigoyen and.

Aitor Leiza Alberdi, jn.

Emiliano Cabañas Gonzalez jn.

Isidro Fernandez Echave jn. ez da bertaratu


Foruen Enparantza, z/g • Tel.: 943 86 50 25 • Fax: 943 86 24 56 20750 ZUMAIA • http://www.zumaia.net
• helbide elektronikoa: komunikazioa@zumaiakoudala.net

**Idazkaria:** Gorka Urgoiti Agirre

## EGUNEKO AZTERGAIAK

### 1.1- Irizpena: 2011. urteko aurrekontua gauzatzeko udal arauaren aldaketa

Arritokieta Gonzalez (BILDU): Zumaia Lantzenen likidezia falta gainditzeko kreditu baten beharra dauka eta hura lortzeko udalak abala eman beharko du. Udalak abala eman ahalko du Foru Aldundiak baimenduz gero. Hori guztia ahalbidetzeko aurrekontua gauzatzeko udal araua aldatu beharra, hau da, abalatzeko muga %10tik %50era handitzea eta Zumaia Lantzenek duen zor biziaren muga lau milioi eta erditik zortzi milioira aldatzea.

Prozedura aldetik, plenoak onartuta jendaurrean 15 egunez argitaratua egongo da. Honi guztiari Plan ekonomiko-finantzario bat erantsiko zaio. Dokumentu hau bete hiru dokumentuz osatzen da: 2011-2014 bitarteko aurrekontu eszenarioa, kontuhartzailearen txostena eta Alkatearen memoria. Plan hori plenoak onartuta ez du, ordea, jendaurrean 15 egunez argitaratuta egon behar. Azkenik, Foru Aldundiak Babes Finantzarioaren txostena eskatzen du; bertan kredituaren baldintzak zehazten dira. Nolanahi ere, Zumaia Lantzen oraindik mailegua negoziatzen ari denez gero ez dute gaurko plenora ekarri

Edurne Egaña (EAJ-PNV): euren iritziz plan ekonomiko-finantzarioa aurkeztearen xedea ez dago batere garbi ez bait datoz bat paperean esaten dena Arritxuk esan duenarekin. Are gehiago, kontuhartzailearen txostena eta Alkatearen memoria euskarazko bertsioa hartuta alde batetik, eta gaztelaniazkoa hartuta bestetik, aurkezteko arrazoiak ezberdinak direla ondorioztatzen da. Hori irudikatzeko euskarazko bertsioa irakurri du eta ondoren bai kontuhartzaileari bai Arritxuri gaia argitzea eskatu die eta euskarazko modeloak ala gaztelaniazkoak balio duen galdetu du.

Zigor Egia (Kontuhartzailea): udalaren parametroak eta ratioak ikusita, berez, udala plan ekonomiko-finantzarioa egitea behartuta ez dagoela adierazi du. Baina ikusita, Zumaia Lantzenek eskatu duen maileguaren kopuruak udalaren abalaren beharra duela, Diputazioak abalari baimena emateko plana aurkeztu behar dugula argitu du. Edurne Egañari arrazoia eman dio gaztelaniazko bertsioan “aprobado en deficit” jartzen duenean. Hori horrela jartzeko arrazoia azaldu du: Diputazioari nabarmendu zion egoera defizitarioa izanik margenen barruan gaudela eta udala ez dagoela behartuta plana egitea, hau da, 1. kapitulutik 7. ra bitarteko diru-sarrerei gastuen kapituluekin kenketa eginez


Foruen Enparantza, z/g • Tel.: 943 86 50 25 • Fax: 943 86 24 56 20750 ZUMAIA • http://www.zumaia.net
• helbide elektronikoa: komunikazioa@zumaiakoudala.net

emaitza negatiboa da; baina, diferentzia hori Diputazioak ezarritako parametroen barne dagoenez orduan ez gaudela behartuta plan ekonomiko-finantzarioa egitera argitu du. Edonola ere, operazioaren berezitasunak aintzat hartuta eta lanak aurreratzeko eta maileguaren datu zehatzak dituztenean beste dokumentua, babes finantzarioarena alegia, egin ahal izateko, momentu honetan plana egitea erabaki zutela azaldu du.

Alkatea: alderdi politikoei txanda bat eman die.

Edurne Egaña (EAJ-PNV): plan ekonomiko-finantzario bat orekatua eta sinesgarria izateaz gain eszenatoki egoki bat planteatu beharko lukeela adierazi du. Hiru urterako asmo iraunkorrak neurri eta murrizketa egokien bitartez aurrekontu orekatuak lortu beharko lituzkete. Baina euren ustez hori guztia ez da betetzen aurkeztutako planean, izan ere inbertsio ahalmena erabat jaisten da Zumaiako herriarentzat 2014rako. Gainera, funtzionamendu gastuek aurrekontuaren %94tik goragokoak izaten jarraitzen dutela eta urte guztietan %90tik gora, hortaz, pertsiana igotzea egunero ia %100a eramaten duela nabarmendu du. Horrek 2012. urtean milioi eta erdi euro baino gehiagoko zorpetzea suposatzen duela eta 2013an ia milioi batekoak direla zehaztu du. Sarrerak oraindik gastuak baino txikiagoak jarraitzen dutela azpimarratu du baita ere. Irudi erreal bat eman nahi bada diru-sarrerak gastuekin bat egin behar dute, koherenteak alegia. Euren iritziz, egokiago izango litzateke plana sektore publiko kontsolidatuaren edo bateratuaren isla izatea; alegia, azterketak egoera osotasunean hartuko balu. Zumaia Lantzenen bideragarritasun-planak zalantzak sortzen dizkietela ere adierazi du.

Emiliano Cabañas (PSE-PSOE): aurrekontuaren ejekuzio arauari dagokionez, %50 muga eta zortzi milioi eurora igotzea lekuz kanpo dago, ez bada salbuespen egoera bati aurre egiteko. Kasuan horrelako egoera batean gaudenez baiezkoa botoa emango dutela adierazi du. Plan ekonomiko finantzario, berriz, boluntaristatzat jo du. Ez du sinesgarria edo bideragarria ikusi. Lau milioi maileguetan defizita ordaintzeko ez beste ezertarako izango da, inbertsiorako izango balitz, behintzat, positiboa izango litzatekeela adierazi du. Udalak inbertsioak geldiarazi ditu baina ez du gastua murriztu, hortaz diru-sarrerarik ez badago nekez egingo diogu aurre zorrari eta lau edo hiru urteren buruan Zumaia Lantzen ezerezean geratuko dela ondorioztatu du. Inbertitu nahi badu nondik aterako duen dirua galdetu du. Gainera, Udalak ez badu barne plan egoki bat egiten orain Zumaia Lantzenen arazoa dena Udalaren arazo bihurtuko da. Diru-sarrerarik ezean eta gastu maila orain artekoa izaten jarraitzen badu planak bideragarritasun eskasa duela salatu du.

Alkatea (BILDU): Gauza bere tokian jartze aldera aurrekontuak zerk osatzen duten azaltzeari ekin dio. Izan ere, udal-aurrekontuak udalaren aurrekontu propioez gain (12 milioi inguru), San Juan Egoitzarenak (1,2 milioi), Musika Patronatua (170.000 euro) eta Zumaia Lantzenenak (udalaren antzekoa) osatzen dute. Aurreko legealditik hona egin diren aldaketak aurrekontu bateratuan, gehienak udalean egin direla adierazi du. Gastuei dagokionez, esaterako, pertsonal gastua %18 edo 17tik %23ra igo dutela aldarrikatu du,


Foruen Enparantza, z/g • Tel.: 943 86 50 25 • Fax: 943 86 24 56 20750 ZUMAIA • http://www.zumaia.net
• helbide elektronikoa: komunikazioa@zumaiakoudala.net

inbertsioak dezente asko egin ditu bai diru-laguntza bitartez bai udalaren baliabide propioei esker. Diru-sarrerei dagokionez, lau urte hauetan Fondo Forala udal-aurrekontuaren ehuneko erdia suposatzen duela argitu du. Bestetik, obra lizentzietatik datozen diru-sarrerak jaitsi egin dira nabarmen. Hori guztia laburbildu du diru-irteerak igo egin direla eta diru-sarrerak jaitsi egin direla adieraziz. Nolanahi ere, Zumaiako Udala Gipuzkoako udalen artean zorrik gabeko udal bakanetako bat da. Beraz, ondo kudeatutako udal bat dela ondorioztatu du. San Juan Egoitza normaltasunez aritu da (ez da baliabiderik gehitu lan ituna izan ezik). Musika Patronatua ere normaltasunez aritu dela ere esan du. Zumaia Lantzeni azken lau urte hauetan (gobernua hartu zutenetik) ez zaio proiektu berri bat ere eman; egin dituenak lau urtez aurretik onartuta edo egin beharrean zeuden proiektuak besterik ez direla izan adierazi du. Gainera lau urte baina aurretiazko diru-sarreretan egin ziren aurreikuspenak ez dira inolaz ere bete (Torreagako 3,8 milioi, ADU 21ko 600.000 € eta Odietan 1.300.000 €ko galera). Horren aurrean arduratsu jokatu dutelako zenbait proiektu utzi egin behar izan dituzte (Odietako plazaren garajeak). Zumaia Lantzenekin orain planteatu duten operazioa bere garaian egindako aurreikuspenak ez direlako bete Honen guztiaren ondoriotzat jo du; EAJ-PNV alderdiak egindako aurreikuspenak bete ez direlako hain zuzen ere.

Alkateak bigarren txanda ireki du eta eztabaidatzen jarraitu dute. Ondoren bozkatzera pasa dira, ondoko emaitzarekin:

**ERABAKI ZATIA**

Aldeko botoak: **7 boto** ( 6 BILDU; 1 ARALAR)

Aurkako botoak: **0 boto**

Abstentzioak: **5 boto** (4 EAJ-PNV, 1 PSE-PSOE)

**Erabakia**: 2011. urteko aurrekontua gauzatzeko udal arauaren aldaketa onartu da

**1.2.- Irizpena: 2011-2014 epealdiko ekonomia eta finantza planaren onarpena**

Aurreko puntuarekin batera gai hau eztabaidatu dute eta bozkatzera ekin diote, ondoko emaitzarekin:


Foruen Enparantza, z/g • Tel.: 943 86 50 25 • Fax: 943 86 24 56 20750 ZUMAIA • http://www.zumaia.net
• helbide elektronikoa: komunikazioa@zumaiakoudala.net

**ERABAKI ZATIA**

Aldeko botoak: **7 boto** ( 6 BILDU; 1 ARALAR)

Aurkako botoak: **5 boto** (4 EAJ-PNV, 1 PSE-PSOE)

Abstentzioak: **0 boto**

**Erabakia**: 2011-2014 epealdiko ekonomia eta finantza plana onartu da

**1.3.- Irizpena: Partiden kredituen atxikipena deusezteko proposamena**

Arritokieta Gonzalez (BILDU): zenbait kreditu atxikipen egin ziren frontoiaren BEZa ordaintzeko eta 2011ko ekitaldian erabili ez denez gero atxikipena deuseztatu egin behar direla azaldu du.

Ondoren proposamena bozkatu dute, ondorengo emaitzarekin:

**ERABAKI ZATIA**

Aldeko botoak: **12 boto** ( 6 BILDU; 1 ARALAR, 4 EAJ-PNV, 1 PSE-PSOE)

Aurkako botoak: **0 boto**

Abstentzioak: **0 boto**

**Erabakia**: Partiden kredituen atxikipena deuseztea onartu da

**2.- Irizpena: Gipuzkoako kontratazioen Zentralak aurrera eramango zuen argindar-hornidura espedientearen hitzarmenaren esleipena.**

Alkatea: Diputazioak abiarazitako kontratazio zerbitzua dela adierazi du; hainbat udal atxikitu direnak zerbitzura gastuak murrizteko. Gainera, lehiaketa honetara Iberdrola bakarrik aurkeztu dela zehaztu du. Orain Zumaiako Udalari dagokio hitzarmenari atxikitzea egoki ikusten badu.

**ERABAKI ZATIA**

Aldeko botoak: **12 boto** ( 6 BILDU; 1 ARALAR, 4 EAJ-PNV, 1 PSE-PSOE)

Aurkako botoak: **0 boto**

Abstentzioak: **0 boto**


Foruen Enparantza, z/g • Tel.: 943 86 50 25 • Fax: 943 86 24 56 20750 ZUMAIA • http://www.zumaia.net
• helbide elektronikoa: komunikazioa@zumaiakoudala.net

**Erabakia**: Gipuzkoako kontratazioen Zentralak aurrera eramango duen argindar-hornidura espedientearen hitzarmenetik eratorritako kontratuaren esleipena onartu da

**3.- Irizpena: ezinduentzako aparkaleku txartela arautzen duen udal ordenantza**

**ERABAKI ZATIA**

Aldeko botoak: **12 boto** ( 6 BILDU; 1 ARALAR, 4 EAJ-PNV, 1 PSE-PSOE)

Aurkako botoak: **0 boto**

Abstentzioak: **0 boto**

**Erabakia**: ezinduentzako aparkaleku txartela arautzen duen udal ordenantza onartu da

Proposamen zatiari dagokionez, Alkateak ontzat eman ditu deialdiarekin batera joan ez diren EAJ-PNVren zenbait mozio, eztabaidatzeko eta bozkatzeko, alegia. Izan ere, bozeramaileen batzordea egiteko arazoren bat egon zen osoko bilkuraren deialdia egin aurretik eta akats hura zuzentzeko, mozio horiek deialdian sartuta egongo balira bezala kontsideratuko dira.
Bestetik, deialdiaren proposamenetako batean, "Euskararen Nazioarteko egunari dagokiona" hain zuzen ere, BILDUK eta EAJ-PNV adostasun bat lortu dute adierazpen instituzional bateratua egiteko.

**4.1.A- Proposamena: Bildu taldeak aurkeztutako Euskal Presoen eskubideen alde.**

Alkatea: Bilduk aurkeztutako proposamena irakurri du.

Montse Arana (EAJ-PNV): Abstentzioa bi arrazoiengatik emango dutela adierazi du. Batetik, ados daudelako presoen eskubideak errespetatu behar direla, baina bestetik, momentu politiko honetan beharrezkoa ikusten dutelako bakea eta normalizazio sendotzeko presoen eskubideaz gain biktimen egoerari aurre egitea. Ondoren euren proposamena irakurtzen du.

Emiliano Cabañas (PSE-PSOE): BILDUren proposamenari ezezko botoa emango diola iragarri du eta EAJ-PNVren proposamenaren inguruan nahiz ados egon 1. eta 2. puntuekin ez dago erabat ados 3. puntuarekin.

Bilduren proposamenari dagokionez, PSE-PSOEren bozeramaileak esan du, Gernikako Akordioa finean inposaketa bat besterik ez dela, legezko espetxe-benefizioak edukitzeko eskatu egin behar ditu presoak eta orain arte, behintzat, uko egin die. Hortaz, hipokritatzat jo du benefizioak aplikatzen ez direla salatzea


Foruen Enparantza, z/g • Tel.: 943 86 50 25 • Fax: 943 86 24 56 20750 ZUMAIA • http://www.zumaia.net
• helbide elektronikoa: komunikazioa@zumaiakoudala.net

benetan eskatzen ez direnean. Gainera eskubideak aipatzen direnean presoenak eta presoenak ez direnen eskubideaz hitz egin beharko litzateke eta hemen bakarrik alde batenak aipatzen dira. Bere iritzian, ezker abertzaleari bide luzea geratzen zaio ibiltzeko demokrazian eta orain hutsetik hasi nahia aurreko guztia gertatu ez balitz bezala ezinezkoa ikusten du.

EAJ-PNVren proposamenari dagokionez, ETAri buruzko balorazioa konpartitzen dutela esan duela baina espetxe-benefizioei egin duen aipua kontuan hartuta abstentzioa emango duela ondorioztatu du.

Alkatea (BILDU): Bilduren aburuz EAJ-PNVek aurkeztutako proposamena hanka motz geratzen da ez duelako errealitatea bere osotasunean hartzen. PSE-PSOEri gogoratzen dio euren proposamenaren 5. puntuan giza eskubideak aipatzen direla eta "Valle de los Caidos" aipatuz memoria selektiboan ez erortzeko memoria denek egin beharko genukeela esan du.

**ERABAKI ZATIA**

Aldeko botoak: **7 boto** ( 6 BILDU; 1 ARALAR,)

Aurkako botoak: **1 boto (**1 PSE-PSOE)

Abstentzioak: **4 boto** (4 EAJ-PNV)

**Erabakia**: BILDUk aurkeztutako proposamena Euskal presoen eskubideei buruzkoa onartu da

**4.1.B- Proposamena: EAJ-PNV taldeak aurkeztutako oinarrizko eskubideen alde.**

**ERABAKI ZATIA**

Aldeko botoak: **4 boto** (4 EAJ-PNV))

Aurkako botoak: **0 boto**

Abstentzioak: **8 boto**( 6 BILDU; 1 ARALAR, 1 PSE-PSOE)

**Erabakia**: EAJ-PNVek aurkeztutako proposamena oinarrizko eskubideen aldekoa onartu da


Foruen Enparantza, z/g • Tel.: 943 86 50 25 • Fax: 943 86 24 56 20750 ZUMAIA • http://www.zumaia.net
• helbide elektronikoa: komunikazioa@zumaiakoudala.net

**4.2.- Proposamena: BILDUk eta EAJ-PNVek aurkeztutako Euskararen nazioarteko egunaren inguruko deklarazio instituzionala**

**ERABAKI ZATIA**

Aldeko botoak: **12 boto** (4 EAJ-PNV, 1 PSE-PSOE, 1 ARALAR, 6 BILDU,)

Aurkako botoak: **0 boto**

Abstentzioak: **0 boto**

**Erabakia**: BILDUk eta EAJ-PNVek aurkeztutako proposamena euskararen egunaren ingurukoa onartu da

**4.3 Proposamena: PSE-PSOEk aurkeztutako Gipuzkoako hiri-hondakinen kudeaketa**

Emiliano Cabañas (PSE-PSOE): Foru Aldundiko gobernukideen ezinbesteko obligaziotzat jotzen du foru-araua betetzea edo, bestela, foru-araua aldatzea. Osterantzean, bai herritarrei bai Foru Aldundiari berari errespetua galtzen diela salatu du. Erraustegiaren inguruko eztabaida antzua kontsideratu du, izan ere hondar frakzioari irtenbidea eman behar zaio ez baitago birziklatzerik eta ez da arazoa konpontzen erraustegia bai ala ez aldarrikatzen. Erraustegiak, hala ere, hondar frakzioa aprobetxatzen du argindarra sortzeko eta ez du hondar organikoa erretzen, horregatik salatu du mahai gainean dagoen eztabaida faltsua dela oinarrian faltsua den zerbait kontsideratzen duelako, hain zuzen. Gainera, Europak zabortegiak debekatu egin dituela gogoratu du eta, hortaz, kontu honi konponbiderik jartzen ez bazaio azkenean zabortegia beharrezko bihurtuko dira. Hori guztiagatik, foru-araua betetzea eskatu du eta bostgarren postontziaren alde egin du. Ondoren euren proposamena irakurri du.

Aitor Leiza (ARALAR): Gaia korapilatsutzat jo du. Bilketatik organikoa kenduko balitz, hondakin soberakina inertea izango litzatekeela adierazi du. Kudeaketari dagokionez Udal-eskumena dela hondakinen kudeaketa nolakoa den erabakitzea. Atez-atekoarekin alderatuta gaur eguneko sistema bilketa hobea dela esatea gezurra dela esan du. Errauskailura errefusa botako bagenu hondakin guztiek erradioaktibitatea sortuko lukete eta Diputazioak ez du ezer esan zer egin hondakin horiekin.

Alkatea (BILDU): Foru-araua erraustegia egin behar denik ez duela agintzen argitzen dio PSE-PSOEko kideari. Bestetik, positiboa ikusten dute PSE-PSOEren jarrera berria mozioen inguruan. Aralarrekin bat etorriz, bilketaren kudeaketa Udalari dagokiola gehitu du eta errausketa ez dela hondakinak tratatzeko modu eraginkorra eta bakarra ere; horregatik, ahalik eta gehien birziklapena bultzatzen duten sistemetara jo behar dela esan du. Derrigorrezkoa ikusten dute moratoria bat gaia patxadaz hausnartzeko sistema guztiak baloratzeko eta ez bakarrik errauskailuarena.


Foruen Enparantza, z/g • Tel.: 943 86 50 25 • Fax: 943 86 24 56 20750 ZUMAIA • http://www.zumaia.net
• helbide elektronikoa: komunikazioa@zumaiakoudala.net

Alkateak bigarren txanda eman du eztabaidan jarraitzeko eta ondoren bozkatzeari ekin diote, ondorengo emaitzarekin:

**ERABAKI ZATIA**

Aldeko botoak: **5 boto** (4 EAJ-PNV, 1 PSE-PSOE)

Aurkako botoak: **7 boto** (1 ARALAR, 6 BILDU)

Abstentzioak: **0 boto**

**Erabakia**: PSE-PSOEK aurkeztutako proposamena Gipuzkoako hiri-hondakinen kudeaketaren inguruan ez da onartu

**4.4.A.- Proposamena: PSE-PSOE taldeak aurkeztutakoa Zumaiako San Juan Egoitzari buruzkoa**

Emiliano Cabañas (PSE-PSOE): alderdiak Foru Aldundiari eskatzen dio sei hilabeteko epean Batzorde Politikoa osatu dezala Udal-egoitzak berrantolatu eta finantzatzeko proposamen bat lantzeko. Foru Aldundiaren mahai gainean dagoena ekartzen dute udalera. Euren iritziz, Foru Aldundiak bere arau propioak bete beharko lituzke, eta gai honen kasuan Eusko Jaurlaritzak 2008 urtean eman zuen legea Foru Aldundiak arau bidez garatu zuena oraindik ez da ejekutatu eta arauaren aplikazioa abiarazi dadila eskatu du. Honen guztiaren ondorioa udaletan defizita sortzea izan da (foru aldundiak 51,93 € ordaintzen ditu eta egoitzako plaza bakoitzak 86,02 €ko kostua du). Bestetik, Egoitza guztiak legez sartuta egon beharko lirateke Foru Aldundiaren estalpean. San Juan Egoitzaren kasuan Foru Aldundiak behar bezala horni dezala bere defizita eskatu du.

Montse Arana (EAJ-PNV): Batzar Nagusietan hartutako bidearekin koherenteak izan nahi dutela esan du. Bi puntu aipatu ditu hori irudikatzeko: batetik, erabat ados daudela Gizarte Zerbitzuaren lege garapenarekin, beraz Foru Aldundiari eskatu diote 6 hilabeteko epean bere eskuetara pasako diren egoitzen egoera erreala zein den aztertu dezala. Bestetik, Zumaiako Udalak defizita dauka San Juan Egoitzarekin baina Diputazioak aurkeztu duen aurrekontu proiektuan ez dira azaltzen egoitzak (suposatzen duen defizita, hain zuzen). Ondorioz Zumaiako Udalak defizita bere gain hartzen jarraitu beharko duela adierazi du.

Alkatea (BILDU): alderdi sozialistak 16 udaletan aurkeztu duen proposamena dela zehaztu du eta ez San Juan Egoitzari buruzkoa bakarrik. Bai Pse-psoek bai Eaj-pnvek aurkeztu dituzten proposamenetan hilabeteko epeaz hitz egiten dela gehitu du eta 2001eko Dekretuak eta xedapen iragankorrak esaten duena gogora ekarri du orain Bilduri hilabeteetan egiteko eskatzen zaiona Eaj-pnv eta Pse-psoek urteetan egiteko gauza ez direlako izan. 2008 legearen arabera 2011rako eskumen banaketa eta finantzaketa gehikuntza egina egon behar zuela adierazi du eta gogora ekarri dio Pse-psoeri Eusko Jaurlaritzari dagokion


Foruen Enparantza, z/g • Tel.: 943 86 50 25 • Fax: 943 86 24 56 20750 ZUMAIA • http://www.zumaia.net
• helbide elektronikoa: komunikazioa@zumaiakoudala.net

finantzaketa gehikuntza ez dela egin. Nolanahi ere, krisi garaia pairatzen ari garela eta jakitun dela Foru gobernua lanean dabilela gai korapilatsu hori konpondu nahian, horregatik leialtasunez eskatzen diote foru aldundiari erantzun egokia eman diezaiola arazoari.

Eztabaidatzen jarraitu dute eta ondoren bozkatzeari ekin diote:

**ERABAKI ZATIA**

Aldeko botoak: **1boto** (1 PSE-PSOE)

Aurkako botoak: **11 boto** (1 ARALAR, 6 BILDU, 4 EAJ-PNV,)

Abstentzioak: **0 boto**

**Erabakia**: PSE-PSOEK aurkeztutako proposamena San Juan Egoitzaren inguruan ez da onartu

**4.4.B.- Proposamena: EAJ-PNV taldeak aurkeztutakoa Zumaiako San Juan Egoitzari buruzkoa**

**ERABAKI ZATIA**

Aldeko botoak: **5 boto** (4 EAJ-PNV, 1 PSE-PSOE)

Aurkako botoak: **7 boto** (1 ARALAR, 6 BILDU)

Abstentzioak: **0 boto**

**Erabakia**: EAJ-PNVek aurkeztutako proposamena San Juan Egoitzaren inguruan ez da onartu

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate-lehendakariak bilera amaitutzat eman du, gaueko zortziak eta hogeita bost minutu direnean, eta nik Idazkariak fede ematen dut,

Idazkaria　　　　　　　　Alkatea


Foruen Enparantza, z/g • Tel.: 943 86 50 25 • Fax: 943 86 24 56 20750 ZUMAIA • http://www.zumaia.net
• helbide elektronikoa: komunikazioa@zumaiakoudala.net

2011IAKU0013

En la villa de Zumaia siendo las dieciocho horas del día dos de diciembre de dos mil once, se constituye en el Salón de Sesiones de ésta Casa Consistorial el Ayuntamiento Pleno, al objeto de celebrar sesión extraordinaria con arreglo al orden del día previamente señalado y a la que habiendo sido citados en tiempo y forma, acuden los siguientes miembros de la corporación:

**Presidente:** Sr. Iñaki Agirrezabalaga Alkorta

**Concejales:**

Sr. Azis Alberdi Zaldunbide

Sr. Iñaki Ostolaza Esnal

Sra. Arritokieta Gonzalez Elosua

Sr. Eneko Agirre Maiora

Sra. Maitane Agirre Arrieta

Sra. Montse Arana Perez

Sra. Edurne Egaña Manterola

Sr. Juan Carlos Cendoya Aizpurua

Sra. Ana Arranz Irigoyen

Sr. Emiliano Cabañas Gonzalez

Sr. Aitor Leiza Alberdi

Sr. Isidro Fernandez Echave (no ha asistido)

**Secretario:** Sr. Gorka Urgoiti Agirre


Foruen Enparantza, z/g • Tel.: 943 86 50 25 • Fax: 943 86 24 56 20750 ZUMAIA • http://www.zumaia.net
• helbide elektronikoa: komunikazioa@zumaiakoudala.net

## ORDEN DEL DÍA

**1.- Dictamen: Modificación de la norma de ejecución presupuestaria para el año 2011**

Arritokieta González (BILDU): Zumaia Lantzen necesita un crédito para superar la falta de liquidez, y para conseguir dicho crédito el Ayuntamiento tiene que dar un aval. El Ayuntamiento podrá avalar el préstamo si La Diputación Foral se lo permite. Para posibilitar todo eso hay que cambiar la norma municipal, hay que cambiar el límite de aval de un 10% a un Zumaia Lantzen de cuatro millones y medio a ocho millones.

El procedimiento consiste en que después de ser aprobado por el Pleno esté en exposición pública durante 15 días. A esto hay que añadir un plan económico financiero. Este documento se compone de otros tres; escenario presupuestario de 2011-2014, informe del interventor y memoria del Alcalde. Una vez sea aprobado definitivamente por el Pleno no necesita de exposición pública. Por último La Diputación Foral de Gipuzkoa pide el informe de protección financiera; donde se señalan las condiciones del crédito. En cualquier caso, dado que Zumaia Lantzen está todavía negociando el crédito no lo han presentado a este pleno.

Edurne Egaña (EAJ-PNV): En su opinión no está nada claro con qué objetivo se presenta el Plan económico-financiero, puesto que lo que se recoge en los papeles no concuerda con lo que ha dicho Arritxu. Es más teniendo en cuenta, por un lado, la versión en euskara del informe del interventor y de la memoria del Alcalde, y, por otro lado, la versión en castellano, se llega a la conclusión de que las razones para presentar el plan son distintas. Seguidamente ha leído la versión en castellano y después ha solicitado tanto a Arritxu como al Alcalde que aclaren la cuestión.

Zigor Egia (interventor): ha aclarado que teniendo en cuenta los parámetros y los ratios del Ayuntamiento, no está obligado a hacer un plan económico-financiero. Pero considerando la cantidad del préstamo que ha solicitado Zumaia Lantzen, necesita el aval de Ayuntamiento, La Diputación ha aclarado que para permitir el aval hay que presentar un plan. Ha dado la razón a Edurne Egaña en cuanto a lo que consta en la versión en castellano “aprobado en déficit”. Ha aclarado las razones por las que consta así: se le aclaró a La Diputación que aún siendo la situación deficitaria, todavía estábamos dentro de los márgenes, y que el Ayuntamiento no está obligado ha realizar el plan, es decir, haciendo la resta entre los ingresos del capítulo 1 al 7 y los gastos el resultado es negativo; pero dado que esa diferencia está dentro de los parámetros ha aclarado que no estamos obligados a hacer ningún plan económico-financiero. En cualquier caso, teniendo en cuenta las características de la operación y para ir adelantando se decidió redactar el plan, para que cuando se tengan los datos concretos del préstamo se pueda redactar el documento de tutela financiera.



Foruen Enparantza, z/g • Tel.: 943 86 50 25 • Fax: 943 86 24 56 20750 ZUMAIA • http://www.zumaia.net
• helbide elektronikoa: komunikazioa@zumaiakoudala.net

Alcalde: cede el turno a los partidos políticos.

Edurne Egaña (EAJ-PNV): Ha planteado que un plan económico-financiero aparte de ser equilibrado y creíble debería de plantear un escenario adecuado. El plan de tres años debería de conseguir un presupuesto equilibrado mediante medidas y ajustes adecuados. Pero en su opinión eso no se cumple en el plan presentado ya que el poder de inversión se reduce enormemente para el año 2014. Además los gastos de funcionamiento siguen siendo superiores al 94% en todos los años, y destaca que el sólo hecho de bajar la persiana supone casi el 100%. Eso supone un endeudamiento de más de un millón y medio de euros para el año 2012, y casi un millón en 2013. Destaca que los ingresos siguen siendo menores que los gastos. Si se quiere dar una imagen real, los ingresos deben adecuarse a los ingresos, es decir deben de ser coherentes. En su opinión sería más adecuado que el plan reflejara el sector público consolidado; es decir que el estudio tomara en cuenta la situación en su conjunto. A manifestado que el plan de viabilidad de Zumaia Lantzen les plantea dudas.

Emiliano Cabañas (PSE-PSOE): En cuanto a la norma presupuestaria, el límite del 50% y aumentar a ocho millones de euros está fuera de lugar, si no es para hacer frente a una excepcionalidad. Como ese el caso, votará a favor. En cuanto al plan económico-financiero le parece demasiado voluntarioso, no lo ve creíble ni viable. Los cuatro millones del préstamo serán para cubrir el déficit no para otra cosa, si al menos fuera para inversiones sería positivo. El Ayuntamiento ha paralizado las inversiones pero no ha reducido el gasto, de modo que si no hay ingresos difícilmente podremos hacer frente a la deuda, y concluye que al cabo de tres o cuatro años Zumaia Lantzen quedará en nada. Se pregunta de dónde sacará el dinero si quiere invertir. Además si el Ayuntamiento no hace un plan adecuado lo que hoy es un problema de Zumaia Lantzen se convertirá un problema del Ayuntamiento. Ha denunciado que si a falta de ingresos el nivel de gasto sigue siendo el mismo que hasta ahora el plan no tiene viabilidad.

El Alcalde (BILDU): A pasado a explicar cómo se compone el presupuesto con la intención de poner cada cosa en su sitio. El presupuesto municipal se compone aparte del prepuesto propio (alrededor de 12 millones), el presupuesto de La Residencia San Juan (1,2 millones), El Patronato de Música (170 mil euros) y el de Zumaia Lantzen (parecido al del Ayuntamiento en cantidad). Los cambios que se han hecho de la anterior legislatura a esta en el presupuesto consolidado, la mayoría se han hecho en el propio Ayuntamiento. En cuanto al gasto por ejemplo el gasto de personal ha aumentado del 17 o 18% al 23%, se han hecho bastantes inversiones, valiéndose de subvenciones por una parte pero también con los recursos propios del Ayuntamiento. En lo que se refiere a los ingresos ha aclarado que el Fondo Foral supone la mitad del presupuesto del Ayuntamiento. Por otro lado, también se han reducido considerablemente los ingresos que provienen de las licencias de obras. Ha resumido todo diciendo que el gasto ha aumentado y los ingresos han disminuido. En cualquier caso, el Ayuntamiento de Zumaia es de los pocos en


Foruen Enparantza, z/g • Tel.: 943 86 50 25 • Fax: 943 86 24 56 20750 ZUMAIA • http://www.zumaia.net
• helbide elektronikoa: komunikazioa@zumaiakoudala.net

Gipuzkoa que no tiene deudas. De modo que ha concluido que es un Ayuntamiento bien gestionado. La Residencia San Juan a funcionado con normalidad (no han aumentado los recursos aparte del convenio laboral). El Patronato de Música también ha funcionado con normalidad. A Zumaia Lantzen en los últimos cuatro años, (desde que asumieron el Gobierno) no se le ha dado ningún proyecto nuevo. Los que ha llevado a cabo han sido los que estaban aceptados de antes. Además las previsiones que se hicieron hace más de cuatro años no se han cumplido en ningún caso (los 3,8 millones de Torreada, 600.000 euros del ADU21 y en Odieta una pérdida de 1.300.000 euros). Ante eso han tenido que actuar con responsabilidad y han tenido que dejar algunos proyectos (los garajes de la plaza de Odieta) (Torreagako 3,8 milioi, ADU 21ko 600.000 € eta Odietan 1.300.000 €ko galera). La operación que han planteado ahora para Zumaia Lantzen ha tenido que ser así porque no se han cumplido las previsiones que se hicieron en su día; porque no se han cumplido las previsiones que hizo EAJ-PNV en su día.

El alcalde ha abierto un segundo turno de intervención y el debate ha seguido en el mismo sentido. A continuación se ha pasado a la votación:

**PARTE RESOLUTIVA**

Votos a favor: **7 votos** ( 6 BILDU; 1 ARALAR)

Votos en contra: **0 votos**

Abstenciones: **5 votos** (4 EAJ-PNV, 1 PSE-PSOE)

**Se aprueba la modificación de la norma de ejecución presupuestaria para el año 2011**

**1.2.- Dictamen: Aprobación del plan económico-financiero para el periodo 2011-2014**

Junto con el punto anterior se ha debatido este tema y se ha pasado a al votación con el siguiente resultado:

**PARTE RESOLUTIVA**


Foruen Enparantza, z/g • Tel.: 943 86 50 25 • Fax: 943 86 24 56 20750 ZUMAIA • http://www.zumaia.net
• helbide elektronikoa: komunikazioa@zumaiakoudala.net

Votos a favor: **7 votos** ( 6 BILDU; 1 ARALAR)

Votos en contra: **5 votos** (4 EAJ-PNV, 1 PSE-PSOE)

Abstenciones: **0 votos**

**Se aprueba el plan económico-financiero para el periodo 2011-2014**

**1.3.-Dictamen: Propuesta para deshacer la retención de los créditos de las partidas**

Arritokieta Gonzalez (BILDU): Aclara que se han hecho algunas retenciones al presupuesto, para pagar el IVA del frontón y como no se ha ejecutado en el ejercicio de 2011, hay que deshacer la retención.

A continuación se ha procedido a votar con el siguiente resultado:

**PARTE RESOLUTIVA**

Votos a favor: **12 votos** ( 6 BILDU; 1 ARALAR, 4 EAJ-PNV, 1 PSE-PSOE)

Votos en contra: **0 votos**

Abstenciones: **0 votos**

**Se aprueba deshacer la retención de los créditos de las partidas**

**2.-Dictamen: Adjudicación del expediente del contrato de suministro de energía eléctrica de la central de contratación de Gipuzkoa.**

El Alcalde: Comenta que es un servicio de contratación iniciado por la Diputación; varios ayuntamientos se han adherido al mismo para reducir gastos. Además a aclarado que a este concurso sólo se ha presentado Iberdrola. Ahora le corresponde al Ayuntamiento de Zumaia adherirse al convenio si lo cree oportuno.

**PARTE RESOLUTIVA**

Votos a favor: **12 votos** ( 6 BILDU; 1 ARALAR, 4 EAJ-PNV, 1 PSE-PSOE)

Votos en contra: **0 votos**

Abstenciones: **0 votos**

**Se aprueba la adjudicación del expediente del contrato de suministro de energía eléctrica de la central de contratación de Gipuzkoa.**


Foruen Enparantza, z/g • Tel.: 943 86 50 25 • Fax: 943 86 24 56 20750 ZUMAIA • http://www.zumaia.net
• helbide elektronikoa: komunikazioa@zumaiakoudala.net

Zumaiako Udala





Foruen Enparantza, z/g • Tel.: 943 86 50 25 • Fax: 943 86 24 56 20750 ZUMAIA • http://www.zumaia.net
• helbide elektronikoa: komunikazioa@zumaiakoudala.net

**3.-Dictamen: Aprobación de la ordenanza municipal reguladora de la tarjeta de estacionamiento para personas con discapacidad.**

**PARTE RESOLUTIVA**

Votos a favor: **12 votos** ( 6 BILDU; 1 ARALAR, 4 EAJ-PNV, 1 PSE-PSOE)

Votos en contra: **0 votos**

Abstenciones: **0 votos**

**Se aprueba la ordenanza municipal reguladora de la tarjeta de estacionamiento para personas con discapacidad.**

En cuanto a la parte de la propuesta, el alcalde ha aceptado debatir y votar las mociones de EAJ-PNV que no se han enviado junto con la convocatoria. Puesto que hubo problemas para celebrar la junta de portavoces antes de hacer la convocatorio del pleno, y para enmendar ese error se considerarán estas mociones igual que si hubieran estado incluidas en la convocatoria.
Por otro lado, en una de las propuestas de la convocatoria en la que se refiere al Día Internacional del Euskera, BILDU y EAJ-PNV han logrado un consenso para presentar una declaración institucional conjunta.

**4.1.A- Proposición presentada por el grupo Bildu a favor de los derechos de los/as presos/as vascos/as.**

El Alcalde: Ha leído la propuesta presentada por Bildu.

Montse Arana (EAJ-PNV): Ha dicho que van a abstenerse por dos razones. Por un lado, porque están de acuerdo en que hay que respetar los derechos de los presos, pero por otro lado, porque en este momento político para consolidar la paz y la normalización ven necesario hacer frente a la situación de las víctimas. A continuación pasa a leer su propuesta.

Emiliano Cabañas (PSE-PSOE): Anuncia que votará en contra de la propuesta de BilLDU y en cuanto a la propuesta de EAJ-PNV, está de acuerdo con los puntos 1ª y 2ª pero no así con el tercero.

En cuanto a la propuesta de BILDU, el portavoz de PSOE ha dicho, que el acuerdo de Gernika no es más que una imposición, para atenerse a los beneficios que posibilita la ley el preso debe de solicitarlos y hasta ahora al menos se han negado a ello. De modo que le parece hipócrita denunciar que no se aplican los beneficios cuando no se solicitan. Además en su cuando se hace mención a los derechos se deberían de mencionar los derechos de los presos y de los que no son presos, y aquí sólo se mencionan los de una parte. En su opinión a la izquierda abertzale le queda un largo recorrido en la democracia, y el hecho de que ahora quieran empezar de cero como si nada hubiera pasado lo ve imposible.


Foruen Enparantza, z/g • Tel.: 943 86 50 25 • Fax: 943 86 24 56 20750 ZUMAIA • http://www.zumaia.net
• helbide elektronikoa: komunikazioa@zumaiakoudala.net

En lo que se refiere a la propuesta de EAJ-PNV, han dicho que comparten la valoración sobre ETA pero teniendo en cuenta la mención que hacen a los beneficios penitenciarios va a abstenerse.

El alcalde (BILDU): Para BILDU la propuesta de EAJ-PNV es incompleta dado que no contempla la realidad en su totalidad. Recuerda al PSOE que en el 5º punto de su propuesta se mencionan los derechos humanos y mencionado el Valle de los Caídos insta a no caer en la memoria selectiva diciendo que es algo que deberíamos a hacer todos.

**PARTE RESOLUTIVA**

Votos a favor: **7 votos** ( 6 BILDU; 1 ARALAR,)

Votos en contra: **1 votos (**1 PSE-PSOE)

Abstenciones: **4 votos** (4 EAJ-PNV)

**Se aprueba la proposición presentada por el grupo Bildu a favor de los derechos de los/as presos/as vascos/as.**

**4.1.B- Proposición presentada por el grupo EAJ-PNV a favor de los derechos básicos.**

**PARTE RESOLUTIVA**

Votos a favor: **4 votos** (4 EAJ-PNV))

Votos en contra: **0 votos**

Abstenciones: **8 votos** ( 6 BILDU; 1 ARALAR, 1 PSE-PSOE)

**Se aprueba la proposición presentada por el grupo EAJ-PNV a favor de los derechos básicos.**

**4.2.- Proposición presentada por los grupos BILDUk y EAJ-PNV: declaración institucional sobre el Día Internacional del Euskera.**

**PARTE RESOLUTIVA**


Foruen Enparantza, z/g • Tel.: 943 86 50 25 • Fax: 943 86 24 56 20750 ZUMAIA • http://www.zumaia.net
• helbide elektronikoa: komunikazioa@zumaiakoudala.net

Votos a favor: **12 votos** (4 EAJ-PNV, 1 PSE-PSOE, 1 ARALAR, 6 BILDU,)

Votos en contra: **0 votos**

Abstenciones: **0 votos**

**Se aprueba la proposición presentada por los grupos BILDUk y EAJ-PNV sobre el Día Internacional del Euskera.**

**4.3 Proposición presentada por el PSE-PSOE sobre la gestión de los residuos urbanos de Gipuzkoa.**

Emiliano Cabañas (PSE-PSOE): Considera que es una obligación ineludible de los miembros del Gobierno Foral cumplir la norma foral o sino la tienen que cambiar. Denuncia que en caso contrario se le pierde el respeto tanto a los ciudadanos como a la Diputación Foral. Considera estéril el debate sobre la incineradora, en su opinión hay que dar una solución a la fracción resto, puesto que no se puede reciclar, y el tema no se soluciona diciendo si o no a la incineradora. La incineradora, aprovecha la fracción resto para crear electricidad y no quema residuo orgánico, por eso denuncia que el debate es falso, Además ha recordado que Europa ha prohibido los vertederos, pero si no se da una solución a toda esta historia al final los vertederos serán necesarios. Por todo ello a solicitado que se cumpla la norma foral y se ha manifestado a favor del quinto contenedor. A continuación ha leído su propuesta.

Aitor Leiza (ARALAR): Ha comentado que el tema es complicado. Si se eliminara el orgánico de la recogida, el residuo resultante sería inerte. En cuanto a la gestión es competencia municipal decidir el modelo de recogida. Ha dicho que no es verdad que el sistema actual de recogida sea mejor que el de puerta a puerta. Si echáramos a la incineradora la fracción resto, todos los residuos crearían radioactividad y la Diputación no ha dicho lo que hay que hacer con esos residuos.

El alcalde (BILDU): Aclara al representante del PSOE que la norma foral no ordena que haya que construir la incineradora. Por otro lado, les parece positiva la nueva actitud del PSOE ante la moción. Está de acuerdo con Aralar en que la gestión de los residuos es de competencia municipal, y dice que la incinerar no es la única forma ni la más eficaz de tratar los residuos. Por eso hay que apostar por los sistemas que más impulsan el reciclaje. Ven forzosa una moratoria para analizar el tema con calma y valorar todos los sistemas, no solo el de la incineradora.

El alcalde abre un segundo turno de intervención y a continuación se pasa a la votación con el siguiente resultado:

**PARTE RESOLUTIVA**


Foruen Enparantza, z/g • Tel.: 943 86 50 25 • Fax: 943 86 24 56 20750 ZUMAIA • http://www.zumaia.net
• helbide elektronikoa: komunikazioa@zumaiakoudala.net

Votos a favor: **5 votos** (4 EAJ-PNV, 1 PSE-PSOE)

Votos en contra: **7 votos** (1 ARALAR, 6 BILDU)

Abstenciones: **0 votos**

**No se aprueba la proposición presentada por el PSE-PSOE sobre la gestión de los residuos urbanos de Gipuzkoa.**


Foruen Enparantza, z/g • Tel.: 943 86 50 25 • Fax: 943 86 24 56 20750 ZUMAIA • http://www.zumaia.net
• helbide elektronikoa: komunikazioa@zumaiakoudala.net

**4.4.A.- Proposición presentada por el grupo PSE-PSOE sobre la Residencia San Juan de Zumaia**

Emiliano Cabañas (PSE-PSOE): el partido solicita a la Diputación Foral que en un plazo de seis meses constituya una Comisión política que elabore una propuesta para la reorganización y financiación de las residencias municipales. Trae al ayuntamiento lo que se ha puesto encima de la mesa en la Diputación. A su parecer la Diputación Foral debería cumplir sus propias normas, y en este caso no se ha ejecutado todavía la ley del Gobierno Vasco de 2008, que después desarrolló la Diputación Foral con una norma, por lo que ha solicitado que se ponga en marcha la aplicación de la misma. A consecuencia de todo esto se ha generado un déficit en los ayuntamientos (la Diputación paga 51,93 € y cada plaza tiene un coste de 86,02 €). Por otra parte, todas las residencias deberían estar bajo el amparo de la Diputación por ley. Solicita que en la caso de la Residencia San Juan la Diputación Foral cubra el déficit como es debido.

Montse Arana (EAJ-PNV): ha señalado que quieren ser coherentes con el camino que se ha tomado en la Juntas Generales. Ha citado dos puntos para representar esa postura: por una parte, están totalmente de acuerdo con el desarrollo de la ley de Servicios Sociales, por lo que han solicitado a la Diputación Foral que en el plazo de 6 meses estudie cuál es la situación real de las residencias que pasarán a sus manos. Por otra parte, el Ayuntamiento de Zumaia tiene un déficit con la Residencia San Juan, pero en el proyecto de presupuesto no se contemplan las residencias (en concreto el déficit que suponen). En consecuencia, según ha señalado, el Ayuntamiento de Zumaia deberá continuar asumiendo el déficit.

Alcalde (BILDU): ha manifestado que es una proposición que el partido socialista ha presentado en 16 ayuntamientos y no expresamente referida a la Residencia San Juan. Ha añadido que en relación a las proposiciones presentadas tanto por PSE-PSOE como por EAJ-PNV, se habla de plazos de meses, y ha recordado lo que dice el Decreto de 2001 y las disposiciones transitorias, porque EAJ-PNV y PSE-PSOE no has sido capaces de hacerlo en años lo que ahora se reclama a BILDU en meses. Según la ley de 2008 el reparto de competencias y el incremento de la financiación debían haberse efectuado para el 2011 y ha recordado al PSE-PSOE que todavía no se ha hecho el incremento de la financiación correspondiente al Gobierno Vasco. En cualquier caso, el gobierno foral es consciente de la crisis que estamos padeciendo y está trabajando para solucionar este complicado tema. Por eso, solicitan con lealtad a la Diputación Foral que dé una respuesta adecuada al problema.


Foruen Enparantza, z/g • Tel.: 943 86 50 25 • Fax: 943 86 24 56 20750 ZUMAIA • http://www.zumaia.net
• helbide elektronikoa: komunikazioa@zumaiakoudala.net

Han seguido debatiendo y a continuación han procedido a votar:

**PARTE RESOLUTIVA**

Votos a favor: **1 voto** (1 PSE-PSOE)

Votos en contra: **11 votos** (1 ARALAR, 6 BILDU, 4 EAJ-PNV,)

Abstenciones: **0 votos**

**No se aprueba la proposición presentada por el grupo PSE-PSOE sobre la Residencia San Juan de Zumaia**

**4.4.B.- Proposición presentada por el grupo EAJ-PNV sobre la Residencia San Juan de Zumaia**

**PARTE RESOLUTIVA**

Votos a favor: **5 votos** (4 EAJ-PNV, 1 PSE-PSOE)

Votos en contra: **7 votos** (1 ARALAR, 6 BILDU)

Abstenciones: **0 votos**

**No de aprueba la proposición presentada por el grupo EAJ-PNV sobre la Residencia San Juan de Zumaia**

No habiendo más temas que tratar, el Alcalde-Presidente da por finalizada la sesión cuando son las veinte horas en punto, y yo el secretario doy fe.

El Secretario El Alcalde


Foruen Enparantza, z/g • Tel.: 943 86 50 25 • Fax: 943 86 24 56 20750 ZUMAIA • http://www.zumaia.net
• helbide elektronikoa: komunikazioa@zumaiakoudala.net